

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

6170

AGINDUA, 2021eko azaroaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, Ikerkuntzako Euskadi Sariaren 2021eko ediziorako deialdia egiteko dena, jarduera zientifikoa sustatzeko.

Abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuak Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen du, jarduera zientifikoa sustatzeko.

Dekretu horren 1.3 artikuluan zehazten denez, Ikerkuntzako Euskadi Sarirako deialdia urtero egingo da, Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez. Agindu horrek honako hauek jasoko ditu: xedea eta hautagaiak aurkezteko epea –inolaz ere ez, hilabete baino gutxiago–.

Horrenbestez, oinarri hartzen dut Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espedienteak aurrez izapidetzeko modua arautzeko Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoa.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da, Gizarte eta Giza Zientzien modalitatean, Ikerkuntzako Euskadi Sariaren 2021eko ediziorako deialdia egitea –abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuaz arautua da sari hori–.

2. artikulua.– Hautagaiak aurkezteko epea.

Hautagaiak aurkezteko epea hilabete naturalekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. artikulua.– Datuak babestea.

Eskatzaileen datu pertsonalak honako tratamendu-jarduera honetan tratatu eta sartuko dira: laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketarako). Informazio hau sartuko da:

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Ikerketarako finantzaketa eta bultzada.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

- Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: eskatzaileek eskubidea dute datuak irispidean izateko eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai dago helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espedienteak aurrez izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administraziooko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduari 5.3 artikuluan zehazten diren ondorioetarako, deialdi honetako sariak ebazteko baldintza izango da 2022. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epearen barruan, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan xedatzen ez diren alderdietarako, abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuak xedatutakoa beteko da, bertan arautzen baita jardura zientifikoa sustatzeko xedea duen Ikerkuntzako Euskadi Saria.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

ERANSKINA

ESKAERA EGITEKO INPRIMAKIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
IKERKUNTZAKO EUSKADI SARIA		

A.- ESKAERAREN DATUAK

Modalitatea	☐	Hautagaiak berak proposatua	☐	Hirugarren batek proposatua
-------------	--------------------------	-----------------------------	--------------------------	-----------------------------

HAUTAGAIAREN DATUAK							
Abizenak, izena							
NAN/AIZ				Sexua	Gizonezkoa		Emakumezkoa
Helbidea				☐	☐		
Udalerria				PK	Herrialdea		
Helb. elektr.				1. telefono-zenbakia	2. telefono-zenbakia		

HAUTAGAIA PROPOSATZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK							
Abizenak, izena							
NAN/AIZ				Sexua	Gizonezkoa		Emakumezkoa
Helbidea				☐	☐		
Udalerria				PK	Herrialdea		
Helb. elektr.				1. telefono-zenbakia	2. telefono-zenbakia		
Kargua							

Erakunde baten ordezkaritza jarduten du	☐
---	--------------------------

ORDEZKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK					
Erak. izena					
IFK					
Helbidea				Udalerria	PK
Telefono-zenbakia					
Helbide elektronikoa					

, sinadura:

Eskatzaileen datu pertsonalak honako tratamendu-jarduera honetan tratatu eta sartuko dira: laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketarako). Informazio hau sartuko da:

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: ikerketarako finantzaketa eta bultzada.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: eskatzaileek eskubidea dute datuak irispidean izateko eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai dago helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/054300-cap2-es.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

(<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=boe-a-2018-16673>).

ESKAERARI ERANTSITAKO DOKUMENTUAK

<i>Dokumentua</i>	<i>Erantsia</i>